



ZIU-N INGRESATUTA DAUDEN PAZIENTEEN SENIDEENTZAKO OHAR INFORMATIBOA

Zaintzaile edo hizketakide nagusiak bezala identifikatuta dauden pertsonak ZIUan sartu ahal izango dira pazienterekin egotera, bisitaldi bakoitzean pertsona bakarra egotea saiaturaz.

- Goizez **12:30etatik 14:00etara**.
Erizainak eta medikuak emandako informazioa 12:30etatik 13:00etara jasoko du.
- Arratsaldean, **16:30etatik 20:30etara**

Beste senide edo hurbilekoen bisitak horrela kudeatuko dira:

- 12:30etatik 14:00etara, pertsona bat hizketakide nagusiak lagunduta.
- 19:30etatik 20:30etara, bi pertsona batera, elkar trukatzeko aukerarekin. Zaintzaile nagusiak egoera kudeatuko du arintasuna ziurtatzeko.

Pertsonal sanitarioak, pazientearen egoeraren arabera, bisita ordutegiari malgutasuna eman diezaiolke.

Gerta daiteke bisita ordutegiak atzerapenak izatea, edota murriztea edo bertan behera gelditzea aurreikusita ez dauden larrialdirik baleude. Ulertuko gaituzuelakoan gaude, gu, gure partez, informatua egon zaitezten saiaturako gara.

Gure pazienteei zainketa bikaina eskaintzeko partaidetza eskatzen dizuegu. Horretarako, Unitate barruko arauak errespetatzea beharrezkoa da.

- Pazienteen pribatutasuna, eta ZIUko antolakuntza zuzena bermatze aldera, logela utzi beharko duzue pertsonalak hala aginduz gero.
- Denon betebeharra da paziente guztien intimitatea gordetzea.
- Ez manipulatu logelan dagoen ezer, zalantza izanez gero, unitateko pertsonalari galdetu.
- Sartzean, telefonoa isiltasunean jarri. Deiak egiteko kanpora irten beharko duzue.
- Datuak Babesteko Legea dela eta, ezin da argazkirik edo bideorik egin Unitate barruan.
- Ingresatuta dauden pazienteen infekzioen arriskua murrizteko, Unitateko hormetan dauden ontzietako likidoekin eskuak garbitu, sartzean eta irtetean ere bai. Debekatuta dago janaririk, edaririk eta lorerik sartzea.
- Mesedez eskatzen dizuegu elkarriketak ahopeka izatea, Unitateko zarata mugatzeko eta ingresatuta dagoen pazientearen estresa ekiditeko.

Denok lan egin behar dugu Unitateko paziente guztien ongizatearen alde. Arauak ez betetzeak bisiten ordutegien murrizketak ekar ditzake.

Zuen telefono zenbakia esan beharko diguzue lokalizatuta egoteko eta guk informatu ahal izateko zuen senidearen aldaketa garrantzitsuaz, lekualdatzeaz, edo pazienteak behar duena eskatzeko. ZIUra deituz gero ez zaizue informaziorik emango pazientearen isilpekotasuna errespetatzeko.

Eginda: 2019ko otsailean

IO-MEDIKUNTZA INTENSIBOA-01

Informazio gehiago nahi izanez gero, galdetu lasai unitateko profesionali.



Senidea/Familiar – Zaintzaile nagusia/Cuidador principal (1)

Izena-Abizenak/Nombre-Apellidos _____

Tlfno.Zb./N° Teléfono _____

Harremana-Ahaidetasuna/Relación-Parentesco _____

Sinadura/Firma

Senidea/Familiar – Zaintzaile nagusia/Cuidador principal (2)

Izena-Abizenak/Nombre-Apellidos _____

Tlfno.Zb./N° Teléfono _____

Harremana-Ahaidetasuna/Relación-Parentesco _____

Sinadura/Firma

Senidea/Familiar – Zaintzaile nagusia/Cuidador principal (3)

Izena-Abizenak/Nombre-Apellidos _____

Tlfno.Zb./N° Teléfono _____

Harremana-Ahaidetasuna/Relación-Parentesco _____

Sinadura/Firma

Senidea/Familiar – Zaintzaile nagusia/Cuidador principal (4)

Izena-Abizenak/Nombre-Apellidos _____

Tlfno.Zb./N° Teléfono _____

Harremana-Ahaidetasuna/Relación-Parentesco _____

Sinadura/Firma